Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

402

EBAZPENA, 2008ko urriaren 14koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendariarena, EB1-0255/07-LC eta EB1-0256/07-LC (04124/03) espedientean Yenni Maribel Altamirano Espinoza andreak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko maiatzaren 12ko Aginduaren bitartez, EB1-0255/07-LC eta EB1-0256/07-LC espedientearen babespean, hasiera eman zitzaion Vitoria-Gasteizko udalerriko Zabalganan, 5. sektorean, dauden babes ofizialeko 336 etxebizitza esleitzeko administrazio-prozedurari.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Arabako lurralde-ordezkariak 2008ko uztailaren 30ean emandako ebazpenaren bidez, prozedura horretan onartu eta baztertutakoen zerrendak onartu zituen. Yenni Maribel Altamirano Espinoza andrea zerrenda horietan baztertutakoen artean azaltzen da, ez zituelako gutxieneko diru-sarrerak egiaztatu.

3.– Yenni Maribel Altamirano Espinoza andreak, ebazpen horrekin ados ez dagoenez, gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen 2008ko irailaren 4an. Bertan adierazi zuen arrazoi ekonomikoak zirela-eta ezin izan zuela dokumentazio guztia aurkeztu, baina tramitatzen ari zela; hortaz, ebazpena berraztertzeko eskatu zuen.

Aurrekari horietan oinarrituz, hona hemen

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Sail honetako Zerbitzu zuzendaria da errekurtso hori ebazteko eskumena duena, horrela xedatzen baita Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan. Errekurtsoa, nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoari jarraituz aurkeztu da.

2.– Honakoak dira erabili beharreko arauak: 39/2008 Dekretua, babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

402

RESOLUCIÓN de 14 de octubre de 2008, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por Dña. Yenni Maribel Altamirano Espinoza en el expediente EB1-0255/07-LC y EB1-0256/07-LC (04124/03).

ANTECEDENTES

1.– Al amparo del expediente EB1-0255/07-LC y EB1-0256/07-LC, se inició mediante Orden de 12 de mayo de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, el procedimiento administrativo de adjudicación de 336 viviendas de protección oficial en Zabalgana Sector 5, en el municipio de Vitoria-Gasteiz.

2.– Mediante Resolución del Delegado Territorial en Álava del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, con fecha 30 de julio de 2008, se aprobaron las listas de admitidas/os y de excluidas/os del procedimiento de referencia. En dichas listas Dña. Yenni Maribel Altamirano Espinoza figura excluida por no acreditar ingresos mínimos.

3.– Con fecha 4 de septiembre de 2008, Dña. Yenni Maribel Altamirano Espinoza interpone recurso de alzada contra la anterior Resolución, mostrando su disconformidad con la misma, alegando que por motivos económicos no aporta toda la documentación, pero la está tramitando. Solicita la revisión de la resolución recurrida.

Sobre la base de estos Antecedentes, se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios de este Departamento es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina de conformidad con lo establecido en el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, y el recurso ha sido interpuesto de acuerdo con lo previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El régimen legal aplicable es el establecido en el Decreto 39/2008, sobre régimen jurídico de vivienda de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, la Orden de 16 de abril de 2008 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por el que se

Agindua, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duena; eta 2008ko maiatzaren 12ko Agindua, Vitoria-Gasteizko udalerriko Zabalganan, 5. sektorean, babes ofizialeko 336 etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena.

3.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak honela dio 115. artikuluan: gora jotzeko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa da eta epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Kasu honetan, errekurritutako ebazpena Arabako Lurralde Ordezkaritzako iragarki-oholean argitaratuta jakinarazi zen 2008ko uztailaren 30ean eta, ondorioz, gora jotzeko errekurtsoa aurkezteko epea 2008ko irailaren 1ean amaitu zen.

Errekurtsogileak 2008ko irailaren 4an aurkeztu zuen errekurtsoa Arabako Lurralde Ordezkaritzan, epez kanpo beraz.

Azaldutako oinarriak, aipatutako xedapenak eta horiekin bat datozenak eta, oro har, aplikagarriak diren gainerakoak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

Yenni Maribel Altamirano Espinoza andreak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ez onartzea, epez kanpo aurkeztu zelako. Errekurtsoa Arabako Lurralde ordezkariak EB1-0255/07-LC eta EB1-0256/07-LC espedientean emandako ebazpenaren aurka aurkeztu zen, eta ebazpen hori bere hartan sendetsi behar da, zuzenbidearekin bat baitator.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietako Vitoria-Gasteizko dagokion epaitegian. Horretarako epea ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta bi hilabetekoa izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 14a.

Zerbitzu zuzendaria,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

regula el procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial y la Orden de 12 de mayo de 2008, el procedimiento administrativo de adjudicación de 336 viviendas de protección oficial en Zabalgana Sector 5, en el municipio de Vitoria-Gasteiz.

3.– El artículo 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, establece que el plazo para interponer el recurso de alzada es de un mes, añadiendo que transcurrido dicho plazo sin haberse interpuesto el recurso, la resolución será firme a todos lo efectos.

En el supuesto que nos ocupa, la resolución recurrida fue publicada y notificada en el Tablón de Anuncios de la Delegación Territorial en Álava desde el 30 de julio de 2008 por lo que el plazo para interponer el recurso de alzada finalizó el 1 de septiembre de 2008.

Teniendo en cuenta que el recurso del ahora recurrente fue presentado en la Delegación Territorial en Álava con fecha 4 de septiembre de 2008, resulta extemporáneo.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Declarar la Inadmisibilidad del recurso de alzada interpuesto por Dña. Yenni Maribel Altamirano Espinoza, por interposición fuera de plazo, contra Resolución del Delegado Territorial de Álava recaída en el expediente EB1-0255/07-LC y EB1-0256/07-LC, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2008.

El Director de Servicios,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.